

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

## Lehenez aurkeztuko dugu lehenengo puntuak

- Behar ditugun baliabideak hurrengo puntuetan azalduko dugu. Lehen egin behar dugun inbertsioa handia izan behar da enpresa martxan jartzeko baina inbertsioak aldatzen joango dira gure sarreren eta gastuen arabera (Zenbat eta etekin gehiago izan, orduan eta diru gehiago izango dugu enpresan sartzeko).
- Lan egiteko beharko ditugun langileak jostunak ditugu, baina bere lana arinago egiteko josteko makina batzuk erabiliko dute lana aurrezteko. Formakuntza pixka bat izan beharko dute bere lanbidean onak direla ziurtatzeko. Gu langile guztiak antolatuko ditugu
- Arroparen diseinuak egiteko diseinatzaileak, diseinu eskola batetik ateratakoak, izan beharko ditugu gurekin lan egiteko eta gure ideiak arropan plasmatzeko. Pertsona hauek aholkuak eman baino ez dute egingo. Diseinua erabakitzeko laguntzen.
- Lokala ezberdinak izan beharko ditugu, arropa diseinatzeko eta arropa josteko (lokal bat ) eta denda fisiko bat (denda hau irekiko dugu denbora asko pasa eta gero, gure marka errentagarria denean) . Posible da lokal handi bat guztia leku berean egiteko.
- Ordenagailuak izan beharko ditugu lan egiteko eta webgune bat sortu, bezeroek web horretatik erosteko eta gure arropa ikusteko. Sare sozialen bidez gure markaren produktuak sustatzeko.
- Gure marka patentatu behar izango dugu marka ziurtatzeko eta babesteko.

### Inbertsioa

- Lehenik inbertsio pertsonal bat egin beharko dugu materiala lortzeko. Inbertsio hau diru laguntza batetik aterako dugu. Sabadel bankuak 10.000€ eskaintzen dizkigu %7ko interesekin. Bost urteetan bueltatu beharko ditugu. Ondoren etekinetik erosiko ditugu materialak.
- Gainera, jantzien neurri bat izango dute, produktua erostean nahasmendurik egon ez dadin eta ahalik eta itzulketa gehien saihesteko. Horretarako, ez da arazorik egongo, edozein produktu edozein unetan itzuli ahal izango baita.

